



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 24a

41. ZK.

### A U R K I B I D E A

B SAILA:

**Foru-lege proposamenak:**

—11-26/PRO-00004. Foru-lege proposamena, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea xede duena. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (4. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-26/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia elektrikoa sortzeko autokontsumo kolektiboa gauzatzeko izapidetzearen gaineko neurriak har ditzan. Miguel Garrido Sola jaunak eta Oihan Mendo Goñi jaunak aurkeztu dute (6. or.).

—11-26/MOC-00071. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Iruñean 1978ko sanferminetan eta Gasteizen 1976ko martxoaren 3ko gertakarietan Estatuak izan zuen erantzukizun nagusi eta zuzena aitortzeko bidean jarrai dezan. EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (7. or.).

—11-26/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita proiektu pilotu bat garatu dezan Iruñeko eta Tuterako udal-merkatuetan supermerkatu publiko bana jartzeko. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (9. or.).

—11-26/MOC-00035. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erregai fosilei buruzko tratatu baterako ekimena babestu dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (10. or.).

—11-26/MOC-00048. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita higiezinaren espekulazioaren kontrako neurriak susta ditzan. Osoko Bilkurak onetsi du (11. or.).

—11-26/MOC-00053. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua berma dezan Gobernuak eta haren erakunde autonomoek antolatutako ekitaldietan. Osoko Bilkurak onetsi du (11. or.).

—11-26/MOC-00054. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren Memoriaren Nafarroako Institutua premiatzen baita azterlan historiografiko sakon bat egin dezan, non Emakumea Babesteko Patronatuak eta haren ekosistema instituzionalak Nafarroan egindako lanaren dimentsio osoa jorratuko duena. Osoko Bilkurak onetsi du (12. or.).

- 11-26/MOC-00068. Erabakia, zeinaren bidez AEBek eta Israelak Iranen aurka abiarazitako gerra ilegala arbuizten baita. Osoko Bilkurak onetsi du (12. or.).
- 11-26/MOC-00060. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuio eta gaitzespenik erabatekoena adierazten baitu, Korrikan ETA erakunde terroristako kideen alde agertu diren pankartak, afixak, sinboloak eta adierazpenak direla-eta. Osoko Bilkurak ezetsi du (13. or.).
- 11-26/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira erantzun bateratua eman diezaioten suteen prebentzioari eta haiei aurre egiteari, Babes Zibileko Sistema Nazionalaren esparruan. Osoko Bilkurak ezetsi du (13. or.).
- 11-26/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria aldezteko neurri-sorta ezohiko eta berariazko bat onetsi dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (13. or.).
- 11-26/MOC-00036. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gaita-irakaskuntza ezar dezan Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalean eta/edo Tuterako Musika Eskola Kontserbatorioan-Fernando Remacha Udal Kontserbatorioan. Hezkuntza Batzordeak onetsi du (14. or.).
- 11-26/MOC-00049. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita animaliak babesteko zentroak kudeatzen dituzten mankomunitateentzako finantzaketa-lerro zuzen eta egonkor bat ezar dezan. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsi du (14. or.).
- 11-26/MOC-00055. Erabakia, Jurramendiko 1976ko gertaeren 50. urteurrenari buruzkoa. Memoria eta Bizikidetzak, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak onetsi du (15. or.).
- 11-26/MOC-00070. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez ditzan itxi haur-hezkuntzako ikasgelak, ez sare publikoan, ez sare itunduan, heldu den ikasturtea planifikatzeko prozesuan. Hezkuntza Batzordeak onetsi du (16. or.).
- 11-26/MOC-00024. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hiru hilabeteko epean hitzarmen eguneratu bat formaliza eta sina dezan San Juan de Dios Ospitalearekin. Osasun Batzordeak ezetsi du (16. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-26/POR-00002. Galdera, “360 Hezkuntza” ikaskuntza integralaren ereduari buruzkoa. Galdera erretiratzeari (17. or.).
- 11-26/PES-00100. Galdera, hartzak ganaduari egindako erasoak prebenitzeko 2024an hartutako neurriei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (17. or.).
- 11-26/PES-00101. Galdera, Foruzaingoak Nafarroan Donejakue Bidean egiten duen zaintza indartzeari buruzkoa. Miren Ixaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (18. or.).
- 11-26/PES-00102. Galdera, Nafarroan gaur egun paratu, merkaturatu edo erabiltzen diren materialek amiantorik ez dutela egiaztatzeko kontrol-mekanismoei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (18. or.).
- 11-26/PES-00103. Galdera, Arantzaditik irtenarazitako 98 pertsonak artatu eta babesteari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (19. or.).
- 11-26/PES-00104. Galdera, Fiteron A ereduaren aurrematrikulatzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (20. or.).
- 11-26/PES-00105. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obrak egiteko epea luzatzei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (20. or.).
- 11-26/PES-00106. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkarte esleipen-hartzaileak jasotako zenbatekoak inpugnatzei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (21. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 47/2026 ebazpena, apirilaren 21ekoa, zeinaren bidez 11-26/PES-00082 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan (21. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/CCPE-00002. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez onesten baita erakundearen zerbitzupeko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko bi lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdiko kalifikazio-epaimahaiaren izendapen-proposamena (22. or.).

- 11-25/ELCT-00001. Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak izendatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (23. or.).
- 11-26/OAN-00002. Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauak aldatzea (23. or.).

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-26/PRO-00004. Foru-lege proposamena, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea xede duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proposamena aurkeztu du, eta eskatu du irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Agintzea Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**2.** Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

**3.** Foru-lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru-lege proposamena, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea xede duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak bere behin betiko testuan erabaki batzuk jaso zituen zeharo desberdinak zirenak ordura arteko araubidearen aldean, zeina Kontratu publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeak ezartzen baitzuen. Kontratazio publikoaren alorrean ordura arte zegoen araubidearen aldaketa hori begi-bistakoa da administrazio publikotzat jotzen ez diren adjudikazio-botereen kontratazioari dagokionez.

Izan ere, araubide juridikoa uniformea izatea erabaki zen, berdin zelarik adjudikazio-boterea administrazio publiko izatea nahiz ez izatea prestaketari eta adjudikazioari dagokion guztian kontratazio publikoaren erregelak aplikatzeari zegokionez, aipatu foru legearen 34.2 artikulua a) letran arautu zen bezala, zeinak ezartzen baitu administrazio publikoaren izaerarik ez duten adjudikazio-botereek egiten dituzten kontratuen araubide juridikoa, eta honako hau xedatzen baitu: "Kontratuen prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, kontratuak foru lege honen bidez arautuko dira".

Aitzitik, Nafarroako Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Lege horrek indargabetu zuen legedian, eta zehazki Kontratu publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean, 184. artikulua berariazko araubide bat ezartzen zuen beste subjektu eta entitate batzuen kontratu publikoen prestaketa eta adjudikaziorako, beste subjektu edo entitate horiek izanik enpresa-entitate publikoak, merkataritza- eta lan-sozietateak, fundazio edo beste entitate batzuk, edo haietako edozeinen elkar-teak, nortasun juridiko publikoa nahiz pribatua dutenak eta Nafarroako administrazio publikoekin lotura dutenak edo azken horien mendekoak direnak.

Labur esanda, bai administrazio publikoei bai administrazio publikoaren izaerarik ez duten adjudikazio-botereei kontratu publikoen prestaketarako eta adjudikaziorako arau berberak aplikatzearen uniformetasun juridikoa dugu, zalantzarik gabe, gardentasunaren, segurtasun juridikoaren eta sinplifikazioaren alorreko neurri nagusietako bat, eta eskatzen du helburu horrekin lotutako interpretazioa ematea Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeari. Adjudikazio-boterea administrazio publikoa izatearen edo ez izatearen arteko bereizketak munta juridikoa galtzen du, eta aurrerapausoa ematen du kontratazio publiko taxuzkoago eta efizienteago baten kultura berri baterantz.

Kontratazio publikoaren araudia hala administrazio publiko diren entitateei nola halakorik ez diren adjudikazio-botereei bereizgabeki aplikatzearen ildo horretan bertan, Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 26ko 15/2019 Foru Legea onestearekin, 5. apartatu berri bat txertatu zitzaion 34. artikuluari, honako testu hau zuena:

“Baldin eta 4.1 e) artikulua zentzuan administrazio publikoei lotuak edo haien mendekoak diren entitateek eginiko jarduerak badira, eta foru lege honen xedapenen mendekoak, administrazio-bidean aurkaratzen ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoari jarraituz, entitate kontratatzailea atxikita dagoen edota haren zaintza dagokion departamentu, organo, ente edo erakundearen titularraren aurrean. Entitate kontratatzailea administrazio bati baino gehiagori lotuta badago, organo eskuduna izanen da kontrola edo partaidetzaren gehiengoa duena”.

Alde horretatik, lege-aldaketaren xedea da argitzea ea kontratu publikoen prestaketa eta adjudika-

ziorako zer arau zaizkien aplikatzeak administrazio publiko ez diren adjudikazio-botereei. Izan ere, interpretatu da arau oso garrantzitsuak ez zirela aplikatuak izaten ari; zehazki, II. tituluaren I. eta II. kapituluetan jasotako xedapenak, administrazio publikoei buruzkoak direnak, baina halaber aplikatu beharko litzaizkiekeenak administrazio-izaera hori ez duten beste adjudikazio-botere horiei ere (133. artikulutik 141.era bitartekoak).

Horregatik, Nafarroako kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen aldaketa hau proposatzen da:

**Artikulu bakarra.** Aldatu egiten da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea.

Honela aldatzen da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea:

Aldatu egiten da 34. artikulua 2. apartatua, eta honela idatzita geratuko da:

“2. Administrazio publikoaren izaerarik ez duten adjudikazio botereek egiten dituzten kontratuen araubide juridikoa honako hau izanen da:

a) Kontratuen prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, kontratuak foru lege honen bidez arautuko dira, barne direlarik II. tituluaren I. eta II. kapituluetan jasotako xedapenak.

b) Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko zaizkie, salbuespena izanik foru lege honetan exekuzio-, aldatz- eta azpikontratatz- baldintza bereziei buruz ezarritakoa”.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-26/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita energia elektrikoa sortzeko autokontsumo kolektiboa gauza- tzeko izapidetzearen gaineko neurriak har ditzan**

*MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK ETA OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak eta Oihan Mendo Goñi jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez einaren bidez Nafarroako Gobernua premiaitzen baita energia elektrikoa sortzeko autokontsumo kolektiboa gauzatzeko izapidetzearen gaineko neurriak har ditzan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Europako RED II eta RED III zuzentarauek autokontsumo indibiduala eta kolektiboa bultzatu dute, eskubide zentral gisa. Energia elektrikoa sortzeko sistema bat, energia-sistema banatu, eraginkor eta Europako deskarbonizazio-helburuekin bat datorrena eratzten laguntzen duena. Era berean, zuzentzarako horiek Europar Batasuneko estatuei aholkatzen diete ez dezaten ezar ekoizpen-modu horrekiko karga edo kostu diskriminatzaileak, neurritz kanpokoak edo justifikaziorik gabekoak.

Filosofia horrekin bat, eta 477/2021 Errege Dekretuak bultzatuta, Nafarroako Foru Komunitatea erreferentzia bihurtu da arlo horretan. Nafarroako Trantsizio Energetikoaren atariaren arabera, gure lurraldean 275 MW baino gehiago sortzen dituzten 11.629 autokontsumorako instalazio daude 2026an, horietako % 93 eguzki-energian oinarrituta, sistema elektrikoaren deszentralizazioa eta jasangarritasunean laguntzen dutenak.

Instalazio horien titularrak askotarikoak dira: etxe pribatuak, enpresak edo administrazio publikoak, banaka edo taldeka. Eta autokontsumo kolektibo horien artean, energia-komunitateak nabarmentzen dira. Formula hori, sorkuntza banatuari laguntzeaz gain, energia-pobreziaren aurka eta herritarren ahalduzaren alde borrokatzeko tresna eraginkorra da. Europako zuzentzarako erabera, energia-komunitateak funtsezko figura dira energia-eredu deszentralizatu, jasangarri eta parte-hartzaile baterako trantsizioan.

Nafarroa, halaber, aitzindaria izan da elektrizitate-sorkuntza kolektiboko figura horiek sortzen eta garatzen; halatan, 100.000 biztanleko energia-komunitate gehien dituen lurraldea da. Guztira 84 energia-komunitate eratu dira, eta horietan 4.832 pertsonak, 173 ETEK eta 106 toki-entitatek parte hartzen dute.

Hala ere, autokontsumo horiek abian jarri eta kudeatu ahal izateko, elektrizitatea banatzen eta merkaturatzen duten enpresen oniritzia behar da, sorkuntza-sistema horiek sortzea gogogabetzen edo zapuzten duen administrazio-prozedura opaku eta konplexu baten bidez.

Errealitatea da autokontsumo kolektibo bat gauzatzeko edo, besterik gabe, energia banatzeko koefiziente bat aldatzeko izapidetza asko luzatzen direla, hilabeteak eta, kasu batzuetan, urtebete baino gehiago.

Erabaki-proposamenak:

Lehenengoa: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter ditzan energia banatzen eta merkaturatzen duten enpresek egindako administrazio-prozedura independenteak nahiz partekatuak, eta txosten bat egin dezan, detektatzeko botila-lepoak eta autokontsumo indibidual edo kolektiboak abian jartzea eta kudeatzea atzeratzen duten arazoak.

Bigarrena: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du txosten hori igor diezaien eta proposamen zehatz bat egin diezaien IDAeri eta MLBNri, egoera hori zuzentzeko beharrezkoak diren aldaketa tekniko eta legalak sustatuta, prozesu horretan parte hartzen duten erakunde guztientzat prozedura arin eta gardena garatzeko:

– Autokontsumo kolektibo bat legeztatzeko eta/edo banaketa-koefizienteak aldatzeko interesa duten pertsonak/erakundeak.

– Administrazio publikoa.

– Energia banatzen eta merkaturatzen duten enpresak.

Hirugarrena: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du txosten hori bidal diezaión Nafarroan eraturako Autokontsumoko Mahaiari, idatziz zehatz ditzan jarraitu beharreko prozeduraren fase guztiak, bai autokontsumorako instalazio indibidual edo kolektibo bat martxan jartzeko, bai banaketa-akordioak aldatzeko.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Foru-parlamentariak: Jose Miguel Garrido Sola eta Oihan Mendo Goñi

## **11-26/MOC-00071. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Iruñean 1978ko sanferminetan eta Gasteizen 1976ko martxoaren 3ko gertakarietan Estatuak izan zuen erantzukizun nagusi eta zuzena aitortzeko bidean jarrai dezan**

*EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Iruñean 1978ko sanferminetan eta Gasteizen 1976ko martxoaren 3ko gertakarietan Estatuak izan zuen erantzukizun nagusi eta zuzena aitortzeko bidean jarrai dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Eskatzen dugu mozio honen betetze-egoerari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordean egin dadila.

### Zioen azalpena

Joan den martxoaren 3an, 50 urte bete ziren Gasteizko herritarrek jasandako polizia-sarraskitik, zeinean bost langile maltzurkeriaz hil baitzituzten egun horretan. Beste bi Basaurin eta Tarragonan, elkartasun-manifestazioetan. Dozenaka pertsona zauritu ziren balaz, eta ehunka lagun gehiago artatu zituzten ospitaleetan. Zauri hark erabat irekita jarraitzen du oraindik, ez baita inoiz justiziarik egon gertaera haietarako, ezta eraso kriminal haren ondoriozko erantzukizunak zehazteko gutxieneko ikerketa ofizialik ere. Krimen horiekiko erabateko zigorgabetasunean igaro dira 50 urte hauek.

Bi urte geroago, 1978ko uztailaren 8an, sanferminetan, Iruñeko biztanleek eta jai haietan parte hartzen zuten Nafarroako biztanle askok ere antzeko eraso basatia jasan zuten zezen-plazan eta hiriko kaleetan. Orduan, Germán Rodríguez Saiz hil zuten, hamaika pertsona balaz zauritu zituzten, eta hirurehun pertsona inguru artatu zituzten osasun-zentroetan. Hiru egun geroago, uztailaren 11n, Donostian egindako elkartasun-manifestazio batean, polizia Joseba Barandiaran gaztea hil zuen.

Gertakari horien biharamunean, uztailaren 9an, Iruñeko Hiriko Ikerketa Batzordea eratu zen. Hartan, Udalak berak hartu zuen parte aktiboki eta nagusiki, bai eta Nafarroako 17 alderdi politiko demokratikak, ezkerreko nazionalistek (PSE-Nafarroa, PCE, EAJ, HB, EE, Alderdi Karlista...), Nafarroako sindikatu guztiek (UGT, CCOO, ELA, LAB, USO, SU, CSUT...) eta auzo-, gazte- eta feminista-talde eta -elkarte ugari ere.

Batzorde horrek baieztatu zuen zezen-plazan hilaren 8an izandako esku-hartzea ez zela ustekabekoa izan, baizik eta alde zuzenetik pentsatua, eta zerikusia zuela Estatuan gertatzen ari ziren antzeko beste batzuekin; besteak beste, Gasteizen 1976ko martxoaren 3an izandakoak eta Jurrarendin urte berean izandakoak. Hori dela-eta, Nafarroako gobernadore zibil Ignacio Llanoren eta Barneko ministro Rodolfo Martín Villaren dimisioa eskatu zen, eta kasuko erantzukizunak eta zigorrak exijitu ziren gertakari haien erantzuleen kasuan. Hala eta guztiz ere, gertakari haiek direla-eta aurkeztutako kereila guztiak ezetsi eta artxibatu ditu Justiziak une desberdinetan, eta krimen horrekiko zigorgabetasuna erabatekoa izan da.

Nafarroako Parlamentuari dagokionez, gertakari haietatik berrogei urte igaro ondoren, 2018ko otsailaren 19an, Ganbera honek erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez Espainiako Gobernuari premiatzen baitzen 1978ko sanferminen gertaka-

riekin lotutako dokumentu guztiak desklasifika zituzten. Hala eta guztiz ere, dokumentu horiek ez dira sekula desklasifikatu; are gehiago, Gobernu zentralak ez dio sekula erantzun Nafarroako Parlamentuari egindako eskaerari.

2018. urte horretan bertan, Nafarroako Parlamentuari, 2024ko ekainaren 13ko Osoko Bilkuran, babesa eman zion Germán Rodríguez senideak, "Sanfermines 78: gogoan!" elkarteak eta gertaera haietan larri zauritutako hainbat pertsonak aurkeztutako kereila kriminalari. Geroago, 2024ko ekainaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Parlamentuari berretsi zuen lehen aipatutako kereila babesten zuela, eta, aldi berean, adierazi zuen diktaduran eta trantsizioan frankismoak egindako krimenak gizateriaren aurkako krimenez hartu behar zirela ondorio guztietarako.

Iruñeko Udalak ere antzeko erabakiak hartu ditu 2019ko otsailaren 7ko eta 2024ko uztailaren 4ko Osoko Bilkuretan, eta horri gehitu behar zaio 1978ko sanferminetako gertakarien biktime guztiei errekonozimendua emateko ekitaldi ofiziala, zein bere egin baitzuen aditu-batzorde batek eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak horretarako idatzitako txostena, non Estatuako Segurtasun Indarrei eta Barne Ministerioari aipatutako gertakarien ardura esleitzen baitzitzaion.

Hortik ondorioztatzen da, lehen aipatutako Iruñeko Ikerketa Batzordeak adierazi zuen bezala, ezaugarri komunak dituztela Gasteizen 1976ko martxoaren 3an izandako gertakariak eta 1978ko sanferminetan izandakoak: poliziaren eraso bortitz-bortitzak, populazio zibilaren kontra modu indiskriminatuan eginak, bi kasuetan emaitza tragikoak izan zituztenak eta inpunitate laido garrienaz estaliak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuari honako erabaki-proposamen hau onesten du:

1. Nafarroako Parlamentuari Espainiako Gobernuari premiatzen du Iruñean 1978ko sanferminetan eta Gasteizen 1976ko martxoaren 3ko gertakarietan Estatuak izan zuen erantzukizun nagusi eta zuzena aitortzeko bidean jarrai dezan.

2. Nafarroako Parlamentuari Espainiako Gobernuari eta lehendakaria premiatzen ditu adierazpen ofizial bat egin dezaten, mailarik gorenean, aurreko puntuan adierazitakoa berresteko.

3. Nafarroako Parlamentuari erakunde eskudunak premiatzen ditu (Espainiako Gobernuari, Barne Ministerioari, Defentsa Ministerioari, Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritza, Giza Eskubideen eta

Memoria Demokratikoaren Salako Fiskaltza...) egiazko eta behin betiko urratsak ematen jarraitu dezaten, Estatuko indarkeriaren biktimen egiarako eskubidea bermatzeko eta, horrela, ateak irekitzeko nahitaezko justizia eta erreparazioa lortzeko, antzeko gertaerak berriro gerta ez daitezen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 16an

Foru-parlamentariak: Irati Jiménez Aragón,  
Mikel Asiain Torres eta Carlos Guzmán Pérez

## **11-26/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua prematzen baita proiektu pilotu bat garatu dezan Iruñeko eta Tuterako udal-merkatuetan supermerkatu publiko bana jartzeko**

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua prematzen baita proiektu pilotu bat garatu dezan Iruñeko eta Tuterako udal-merkatuetan supermerkatu publiko bana jartzeko.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egin dadila eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Azken urteotan, bata bestearen ondoko nazioarteko krisialdiek, bereziki Ukrainako eta Errusiako gerrak eta Estatu Batuek eta Israelek Iranen aurka egindakoak, energia-kostuak eta salgaien garraioarenak etengabe igotzea ekarri dute, eta horrek eragin zuzena izan du nekazaritzako elikagaien sistemari.

Testuinguru horren ondorioz, nabarmen igo da elikagaien prezioa, eta horrek eragin zuzena izan du Nafarroako herritarren erosketa-saskian, baina garestitze horrek ez du berekin ekarri soldaten igoera.

Hala ere, garestitze hori ez da modu ekitatiboa banatu elikadura-katean zehar. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta ekoizle txikien sektorean marjinak murriztu egin dira ekoizpen-kostuak handitu direlako (energia, ongariak, garraioa), baina elikagaien banaketa-talde handiek –Mercadonak, Carrefourrek edo Eroskik, adibidez– irabaziak handitu dituzte bitarte horretan.

Egoera horrek agerian uzten du egiturazko desoreka dagoela elikaduraren balio-katean, eta horrek kalte egiten die ekoizpen-etxeei nahiz kontsumitzaileei, tokiko nekazaritzako elikagaien sarea ahultzen baitu eta premia biziko ondasunetarako sarbidea garestitzen baitu.

Supermerkatu publikoak sortzeko planteamendua eztabaidagai izan da hainbat herrialdetan, inflazioari aurre egiteko, oinarritzako elikagaiak arazoizko prezioan eskuratzea bermatzeko eta

ekoizle txikiei laguntzeko tresna eraginkor gisa. Era berean, elikadura-subiranotasuna indartzen eta lan-baldintza duinak sustatzen laguntzen du kate osoan.

Horrelako ekimen publiko batek beste helburu batzuk lortu beharko lituzke, hala nola elikagaiak eta oinarrizko produktuak arrazoizko prezioan eskuratzea bermatzea, tokiko eta hurbileko produktuen merkaturatzea lehenestea, elikadura-subiranotasuna sustatzea edo lan-baldintza duinak ziurtatzea kate osoan.

Gainera, gisa horretako proiektu batean, produktuek elikadurako eta garbitasuneko oinarrizko saski bat, gutxienez, bee beharko lukete. Prezioak irisgarritasun ekonomikoko irizpideen arabera finkatu beharko lirarteke. Eta kontrol-mekanismoak ere ezarri beharko lirarteke, pilaketa eta birsalmenta saihesteko eta zerbitzuaren funtzio soziala ziurtatzeko. Hori guztia, lehen sektoreei eta tokiko ekoizpenari laguntzeko politikak indartuz, merkaturatze-bide

laburrak sustatuz eta Elikakatearen Legea egiaz betetzen dela bermatuz.

Helburu horiek guztiak bat datoz talde parlamentario honen lehentasunekin, eta bereziki beharrezkoak dira gaur egungo testuinguruan, zeina bizitzaren kostuaren igoera etengabeak ezaugarritzen baitu —bereziki, elikaduran eta etxebizitzan—, eta biztanleriaren zati batek oinarrizko produktuak, produktu osasungarriak eta kalitatezkoak eskuratzeko mugatzen ari baita.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-ko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen du proiektu pilotu bat garatu dezan Iruñeko eta Tuterako udal-merkatuetan supermerkatu publiko bana jartzeko.

Iruñean, 2026ko apirilaren 16an

Foru-parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## 11-26/MOC-00035. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erregai fosilei buruzko tratatu baterako ekimena babestu dezan

### OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko apirilaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erregai fosilei buruzko tratatu baterako ekimena babestu dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Berretsi egiten du etengabe konprometituri dagoela Parisko Akordio Klimatikoan jasotzen diren helburuekin eta Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernuarteko Taldeak berotegi-efektu gasak murrizteko ezartzen dituen helburuekin, eta Parisko Akordio Klimatikoaren arabera berotegi-efektuko gasen murrizketa proportzionala betetzeko konpromisoa hartzen du.

2. Formalki babesten du erregai fosilei buruzko tratatu baten aldeko deia —ez ugaritzea eta ezabatzeko progresiboa—.

3. Nafarroako Gobernua premiatzen du erregai fosilei buruzko tratatu baten ekimena babestu dezan.

4. Nafarroako Gobernua premiatzen du neurriak susta ditzan ekimen hori herritarren artean ezagutarazteko eta eta inplikaturako beste erakunde eta gizarte-eragileekiko lankidetzeta eta eztabaida sustatzeko.

5. Espainiako Gobernua premiatzen du erregai fosilei buruzko tratatu baten ekimena babestu dezan.

6. Berresten du langileentzako, erkidegoentzako eta erregai fosilen mende dauden ekonomientzako trantsizio energetiko bidezko eta ekitatibo baten alde dagoela, inor atzean utzi gabe”.

Iruñean, 2026ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00048. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita higiezinaren espekulazioaren kontrako neurriak susta ditzan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko apirilaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita higiezinaren espekulazioaren kontrako neurriak susta ditzan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Etxebizitzaren eta hirigintzaren arloko arau-aldaketak aztertu eta, kasua bada, susta ditzan,

tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeetan etxebizitzaren erosketaren espekulatioa mugatzea ahalbidetzen duten tresnak txertatzeko, ohiko bizileku gisa erabiltzeari lehentasuna emanaz.

2. Erabilera lagatzeko epe luzerako hitzarmenak bultzatzen dituzten gutxiegi erabilitako higiezinaren titular diren entitateekin, erlijio-entitateak eta beste entitate batzuk barne, etxebizitza sozialeko programetara bideratzeko.

Iruñean, 2026ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00053. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu berma dezan Gobernuak eta haren erakunde autonomoek antolatutako ekitaldietan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko apirilaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu berma dezan Gobernuak eta haren erakunde autonomoek antolatutako ekitaldietan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu berma dezan Gobernuak eta haren erakunde autonomoek antolatutako ekitaldietan.

Ordezkaritza orekatu bermatzeko, Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartu behar dituzten parte hartzen duen ekitaldi guztietan irudi askotarikoa eta plurala eskaintzeko, hala nola foroetan, jardunaldietan, lantaldeetan, agerraldietan, publikitatean, prentsaurrekoetan, epaimahaietan, sari-banakaketetan eta ekitaldi ofizial orotan.

Salbuespen gisa, genero-berdintasunaren arloan egiten diren ekitaldiak, eta emakumeen parte-hartzea apala den eremuetan emakumeak ikusaraztea helburu dutenak, emakumeen presentzia handiagoa izatearen irizpidearekin egiten ahalko dira.

2. Komunikazio inklusiboa eta ez-sexista bermatzeko estrategiak eta ekintzak garatu ditzan. Ekidin egingen da genero-estereotipoetan eta/edo desperekotasun- eta diskriminazio-harremanak betetzeko dituzten estereotipoetan oinarritutako informazioa eta komunikazioa erreproduzitzea. Horretarako, emakumeen eta LGBTBI+ pertsonen pertzepzio sozialari modu negatiboan eragiten dioten genero-estereotiporik gabeko hizkuntza eta irudiak erabili beharko dira.

3. Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatuta dezan aurreko paragrafoetan adierazitako gai buruzko gida eta/edo protokolo berriak onartzea eta partekatuen prestaketa”.

Iruñean, 2026ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00054. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren Memoriaren Nafarroako Institutua premiatzen baita azterlan historiografiko sakon bat egin dezan, non Emakumea Babesteko Patronatuak eta haren ekosistema instituzionalak Nafarroan egindako lanaren dimentsio osoa jorratuko duena**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko apirilaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren Memoriaren Nafarroako Institutua premiatzen baita azterlan historiografiko sakon bat egin dezan, non Emakumea Babesteko Patronatuak eta haren ekosistema instituzionalak Nafarroan egindako lanaren dimentsio osoa jorratuko duena. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Memoriaren Nafarroako Institutua premiatzen du azterlan historiografiko sakon bat egin dezan, non Emakumea Babesteko Patronatuak eta haren ekosistema instituzionalak Nafarroan egindako lanaren dimentsio osoa jorratuko baita.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du ikerketa hori genero-ikuspegitik eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko lankidetzan egin dadin, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren parte-hartzearekin.

3. Nafarroako Parlamentuak Memoria eta Bizikidetzaz Zuzendaritza Nagusia premiatzen du bilera egin eta lankidetzaz-bide bat ezar dezan COMFIN-Nafarroako berdintasunaren aldeko emakume erakundeekin eta/edo erakunde feministen koordinatzailearekin, egindako ikerketatik erator daitezkeen jarduketak aztertzeko".

Iruñean, 2026ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-26/MOC-00068. Erabakia, zeinaren bidez AEBek eta Israelek Iranen aurka abiarazitako gerra ilegalak arbuiatzen baita**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko apirilaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez AEBek eta Israelek Iranen aurka abiarazitako gerra ilegalak arbuiatzen baita. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiatzen du Estatu Batuek eta Israelek Iranen aurka hasitako gerra ilegal eta bidegabea, bai eta Nazio Batuen Gutuna nahiz nazioarteko zuzenbidea urratzen duen beste edozein ekintza militar ere, eta berresten du konprometituta dagoela bakearekin, gatazken konponbide politikoarekin eta nazioarteko eskubidearekin errespetuarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak berehalako su-etena exijitzen du, egiazkoa eta egiaztagarria Ekialde Hurbileko lurralde osoan, salbuespenik gabe. Eta orobat exijitzen du populazio zibilaren kontrako indarkeria-mota amaitu dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak aire-eremua Estatu Batuen operazio militarrei ixtearen alde dago, eta errefusatu egiten du Espainiako base militarrek (Rotakoa eta Moróngo, kasu) gerrari lotutako operazioetarako erabilteza".

Iruñean, 2026ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-26/MOC-00060. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuio eta gaitzespenik erabatekoena adierazten baitu, Korrikan ETA erakunde terroristako kideen alde agertu diren pankartak, afixak, sinboloak eta adierazpenak direla-eta**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko apirilaren 16an egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuio eta gaitzespenik erabatekoena adierazten baitu, Korrikan ETA erakunde terroristako kideen alde agertu diren

pankartak, afixak, sinboloak eta adierazpenak direla-eta. Mozioa 2026ko otsailaren 9ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-26/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira erantzun bateratua eman diezaioten suteen prebentzioari eta haiei aurre egiteari, Babes Zibileko Sistema Nazionalaren esparruan**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko apirilaren 16an egindako bilkuran, ezetsi egin du Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira erantzun bateratua eman diezaioten suteen prebentzioari eta haiei aurre egiteari, Babes Zibileko Sistema Nazio-

nalaren esparruan. Mozioa 2026ko otsailaren 9ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-26/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria aldezteko neurri-sorta ezohiko eta berariazko bat onets dezan**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko apirilaren 16an egindako bilkuran, ezetsi egin du Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria aldezteko neurri-sorta ezohiko

eta berariazko bat onets dezan. Mozioa 2026ko apirilaren 14ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00036. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gaita-irakaskuntza ezar dezan Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalean eta/edo Tuterako Musika Eskola Kontserbatorioan-Fernando Remacha Udal Kontserbatorioan**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak 2026ko apirilaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gaita-irakaskuntza ezar dezan Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalean eta/edo Tuterako Musika Eskola Kontserbatorioan-Fernando Remacha Udal Kontserbatorioan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen du:

1. Nafarroako Foru Komunitateko musikako lanbide-ikasketetako curriculum-a ezartzen duen martxoaren 19ko 21/2007 Foru Dekretua aldatuz gaita-irakaskuntzako gradu profesional bat sortzera Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalean eta/edo Tuterako Musika Eskola Kontserbatorioan-

Fernando Remacha Udal Kontserbatorioan, 2026-2027ko ikasturterako. Horretarako, eta 2027-2028ko ikasturtean modu eraginkorrean ezarri ahal izateko, beharrezkoa izanen da 21/2007 Foru Dekretuaren aldaketa onestea ikasturte akademiko horri dagozkion musikako lanbide-ikasketetara sartzeko probak arautzen dituen foru-agindua baino lehenago; horrela, nafar gaitaren espezialitatea onarpen-prozedura ofizialean sartzen dela bermatuko da.

2. Plangintza- eta kalendarizatzetan egitera espezialitatea Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan progresiboki ezartzeko, eta mozioa onartu eta gehienez ere hiru urteko epean martxan jarriko dela bermatzera”.

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00049. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita animaliak babesteko zentroak kudeatzen dituzten mankomunitateentzako finantzaketa-lerro zuzen eta egonkor bat ezar dezan**

### *LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak 2026ko apirilaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita animaliak babesteko zentroak kudeatzen dituzten mankomunitateentzako finantzaketa-lerro zuzen eta egonkor bat ezar dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Finantzaketa-lerro zuzen eta egonkor bat ezar dezan animaliak babesteko zentroak kudeatzen dituzten mankomunitateentzat, 19/2019 Foru Legetik heldu den erantzukizun partekatua-aren printzipioan oinarrituta. Finantzaketa horrek legezko eskakizun berrien ondoriozko kudeaketa operatiboko gastuak ase behar ditu (langileak, 24 orduko albaitarritza-arreta eta mantentze-lanak), zama soilik tokiko diru-kutxan gain erortzea saihestuz.

2. Animaliak babesteko zentroak sortzea susta dezan gaur egun ez dauden zonaldeetan, hau da, iparraldean, Lizarran eta Zangozan, lurralde-berdin-

tasuna bermatzeko Hedapen hori larrialdiko eta egonaldi laburreko (gehenez 60 egun) eskualde-zentroen eredu batean oinarrituko da, berehalako toki-kudeaketarako, halako moduan non Nafarroako Gobernuaren egungo Animaliak Babesteko Zentroa egonaldi luzeko erreferentzia-zentro bihurtuko baita Foru Komunitate osorako.

3. Lankidetzaren hitzarmen komun bat sina dezan zerbitzua ematen duten markomunitate guztiekin, jarduera- eta kudeaketa-protokoloak bateratu dai-

tezen. Era berean, foru-mailan adopzio bakar eta publikorako plataforma bat sor dadin premiatzen du, zentro guztietako informazioa zentralizatuko duena, Nafarroan berreskuratutako animalia orok etxe bat aurkitzeko aukera berberak izanen dituela bermatzeko, alde batera utzita animalia zer eskualdetan jaso den”.

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-26/MOC-00055. Erabakia, Jurramendiko 1976ko gertaeren 50. urteurrenari buruzkoa

### *MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzaren, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak 2026ko apirilaren 22an onetsitako erabakia, Jurramendiko 1976ko gertaeren 50. urteurrenari buruzkoa. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak gogora ekarri nahi ditu Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santos, Estatuko instantziek eta ultraeskuineko nahiz faxismoko elementuek egindako terrorismoaren biktima diren aldetik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez ekitaldi instituzional

bat egin dezan Jurramendi 1976ko biktimen gومتan 2026ko maiatzaren 9an eta Iratxeko monasterioaren ondoan dagoen monolitoan seinatu zen memoriaren lekuaren inaugurazio ofiziala egin dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Sekretu Ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1978 Legean –urriaren 7ko 48/1978 Legeak aldatutakoan– ezarritakoarekin bat, behar den erabakia har dezan, Jurramendi-1976ko gertaerak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko, 1976ko maiatzaren 9ko gertaeren aurrekoak zein gerokoak”.

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00070. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita ez ditzan itxi haur-hezkuntzako ikasgelak, ez sare publikoan, ez sare itunduan, heldu den ikasturtea planifikatzeko prozesuan**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak 2026ko apirilaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita ez ditzan itxi haur-hezkuntzako ikasgelak, ez sare publikoan, ez sare itunduan, heldu den ikasturtea planifikatzeko prozesuan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen du:

1. Ez ditzan itxi haur-hezkuntzako ikasgelak, ez sare publikoan, ez sare itunduan, heldu den ikasturtea planifikatzeko prozesuan.

2. Urtebeteko moratoria ezar dezan hezkuntza-itunen berritzean, 416/1992 Foru Dekretuaren 44. artikulua babesean, egiturazko erabakiak salbuespeneko egoera demografikora egokitzeko.

3. Balia dezan ikasle-kopuruaren murrizketa koiunturala hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko, aniztasunarekiko arreta indartuz, ratioak ahal den neurrian murriztuz eta sistemaren plangintza orekatua finkatuz.

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-26/MOC-00024. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita hiru hilabeteko epean hitzarmen eguneratu bat formaliza eta sina dezan San Juan de Dios Ospitalearekin**

### *OSASUN BATZORDEAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2026ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, ezetsi egin du Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita hiru hilabeteko epean hitzarmen eguneratu bat formaliza eta sina dezan San Juan de Dios Ospitalearekin. Mozioa 2026ko otsailaren 20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-26/POR-00002. Galdera, “360 Hezkuntza” ikaskuntza integralaren ereduari buruzkoa****GALDERA ERRETIRATZEA**

2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Kevin Lucero Domingues jaunak “360 Hezkuntza” ikaskuntza integralaren ereduari buruzko ahozko galdera erretiratu izana.

Galdera 2026ko urtarrilaren 13ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-26/PES-00100. Galdera, hartzak ganaduari egindako erasoak prebenitzeko 2024an hartutako neurriei buruzkoa****FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, hartzak ganaduari egindako erasoak prebenitzeko 2024an hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Pirinioetan –bereziki, Erronkari Ibairean– zenbait neurri ezarri ziren 2024an hartzak ganaduari eraso egitea prebenitzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer ebaluazio egiten du neurri horiei buruz? Zer emaitza zehatz lortu da neurri horiei esker (eraso-kopuruak gutxitzea, onura izan duten ustategien kopurua, 2025ean egindako inbertsioak)? Zer aurreikuspen darabilzue gogoan neurriak 2026 mantentzeari edo handitzeari begira?

Iruñean, 2026ko apirilaren 12an

Foru-parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## **11-26/PES-00101. Galdera, Foruzaingoak Nafarroan Donejakue Bidean egiten duen zaintza indartzeari buruzkoa**

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Foruzaingoak Nafarroan Donejakue Bidean egiten duen zaintza indartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismo kontseilari Rebeca Esnaola andreaki, idatziz erantzun diezaion:

Duela gutxi jakin dugu Foruzaingoak Nafarroan Donejakue Bidean egiten duen zaintza indartuko duela urrira arte, bitarte honetan erromeskopurua handitzen dela ikusita.

Dispositibo berezia Donejakue Bidearen ibilbide, aterpetxe eta herrietan ezarriko da, urtero Foru Komunitatean Bidea egiten duten 42.000 pertsona baino gehiago babesteko.

Dispositibo hori Nafarroako Donejakue Bidearen 2026rako Lan-egitasmo Integralaren parte da, zeina 2019ko maiatzaren 15eko Gobernu Akordioaren errekerimenduari erantzunez egin baitzen, Donejakue Bidearen kudeaketa eta gobernantza direla-eta, Foruzaingoak urte osoan zehar Bideari ematen dion babesaren baitan.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

Zeintzuk dira zaintza handiagoa izanen duten eremuak?

Zer dispositibo ezarriko da Luzaidetik Orreagara bitarteko pasabidea indartzeko?

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Foru-parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## **11-26/PES-00102. Galdera, Nafarroan gaur egun paratu, merkaturatu edo erabiltzen diren materialek amiantorik ez dutela egiaztatzeko kontrol-mekanismoei buruzkoa**

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Nafarroan gaur egun paratu, merkaturatu edo erabiltzen diren materialek amiantorik ez dutela egiaztatzeko kontrol-mekanismoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Oraindik ere arriskua dagoenez beste herrialde batzuetatik inportatu eta amiantoa izan dezaketen produktuak, osagaiak edo materialak merkatuan sartzeko:

Nafarroako Gobernuak zer kontrol-, ikuskapen- eta zaintza-mekanismo aplikatzen edo eskatzen du egiaztatzeko ezen Nafarroan instalatutako, merkaturatutako edo erabilitako materialek, ekipoez, osagaiak edo produktuek ez daukatela amiantorik nazioarteko inportaziotik edo hornidura-kateetatik heltzen direnean?

Iruñean, 2026ko apirilaren 16an

Foru-parlamentaria: Félix Zapatero Soria

---

## **11-26/PES-00103. Galdera, Arantzaditik irtenarazitako 98 pertsonak artatu eta babesteari buruzkoa**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Arantzaditik irtenarazitako 98 pertsonak artatu eta babesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Iruñeko Udaleko gobernu-taldearen jokabidea ikusita, zer egingen du Nafarroako Gobernuak bermatzeko Arantzaditik irtenarazitako 98 pertsonen arreta eta babesa?

Iruñean, 2026ko apirilaren 16an

Foru-parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-26/PES-00104. Galdera, Fiteron A ereduan aurrematrikulatzeari buruzkoa

### ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Fiteron A ereduan aurrematrikulatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru-parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako

Gobernuari eskatzen dio galdera hauei erantzun diezaien.

Berriki Fiteroko guraso batzuek salatu dute haien seme-alabak A ereduan aurrematrikulatu nahi izan dituztela baina ez dutela aukerarik izan.

Izan al dute familia horiek aurrematrikula A ereduan egiteko aukerarik? On line, Educa bidez? Aurrez aurre, ikastetxean?

Zenbat haurrek egin dute edo egin nahi izan dute aurrematrikula A ereduan Fiteron? Zein adinetakoak dira?

Egoera hori beste zein ikastetxetan gertatu da?

Zergatik?

Nola bermatu behar du Hezkuntza Departamentuak 2026-2027 ikasturtean familia horiek guztien A ereduan matrikulatzeko izanen duten eskubidea?

Iruñean, 2026ko apirilaren 16an

Foru-parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-26/PES-00105. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obrak egiteko epea luzatzeri buruzkoa

### PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Belateko tunelak bikoizteko obrak egiteko epea luzatzeri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Belateko tunelak bikoizteko obrak egiteko epea luzatzea eskatu al du ABEE esleipen-hartzaileak? Erantzuna baiezkoa bada, eman horri buruz dagoen dokumentazioa.

Iruñean, 2026ko apirilaren 16an

Foru-parlamentaria: Pedro González Felipe

## **11-26/PES-00106. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkarte esleipen-hartzaileak jasotako zenbatekoak inpugnatzeari buruzkoa**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkarte esleipen-hartzaileak jasotako zenbatekoak inpugnatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osés andreak ikerketa-batzordean aurreratu zuen Belateko tunelak bikoizteko obraren ABEE esleipen-hartzaileak aurkaratu eginen zituela orain arte egindako lanak direla-eta jasotako zenbatekoak. Aurkaratu al ditu?

Iruñean, 2026ko apirilaren 16an

Foru-parlamentaria: Pedro González Felipe

## **Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 47/2026 ebazpena, apirilaren 21ekoa, zeinaren bidez 11-26/PES-00082 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Cristina López Mañero andreak eskatu du Nafarroako Gobernuari eskatzeko idatziz erantzun beharreko galderari erantzun diezaion, hura erantzuteko epea igaro ondoren, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Nafarroako Gobernuak Erregelamenduko 215.1 artikulua araberako foru parlamentarietara erantzuteko duen epea igaro baita, EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Gobernuak premiaz 15 eguneko epean erantzun dezan Legebiltzar honen Mahaiak izapidetutako galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionalaren proiektuan 2024an jaso ziren aldaketa nagusiei eta horien kostu ekonomikoari buruzkoa (11-26/PES-00082).

2. Erabaki hau Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Cristina López Mañero andreak jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-25/CCPE-00002. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez onesten baita erakundearen zerbitzupeko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko bi lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdiko kalifikazio-epaimahaiaren izendapen-proposamena**

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzupeko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko bi lanpostu huts oposizio bidez betetzeko hautapen-prozesua bukatuta, kalifikazio-epaimahaiak, lehendakariaren 2025eko martxoaren 20ko ebaz-

pen bidez onetsi zen deialdian ezarritakoaren arabera (apirilaren 10eko 72. NAO), prozesua gainditu duten izangaien honako zerrenda hau argitaratu zuen 2026ko martxoaren 30ean:

Izena	1. ariketa	2. ariketa	Puntuazioa, guztira
María Dolores Saiz Agustín	24,64	45	69,65

Halaber, epaimahaiak oposizioa gainditu duen pertsona bakarraren aldeko izendapen-proposamena helarazi dio lehendakari honi, eta, horrenbestez, beste plaza hutsik geratu da. Gainera, epaimahaiak jakinarazi du ez dela aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendarik osatuko, parte hartu dutenen artean inork ere ez baititu betetzen deialdiaren 10. oinarrian ezarritako betekizunak.

Hortaz, lehendakari honek, esleiturik dituen eskumenak baliatuta, EBATZI DU:

**Lehena.** Onestea Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzupeko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko bi lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdiko kalifikazio-epaimahaiak María Dolores Saiz Agustín andrearen alde egindako izendapen-proposamena (beste plaza hutsik geratu da).

**Bigarrena.** María Dolores Saiz Agustín andreari eskatzea deialdiko 7.3 oinarrian adierazten den dokumentazioa aurkez dezan, izendapen-proposamen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita 30 egun naturaleko epean.

**Hirugarrena.** Ezartzea ez dela aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendarik osatuko, parte hartu dutenen artean inork ere ez baititu betetzen deialdiaren 10. oinarrian ezarritako betekizunak.

**Laugarrena.** Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Ilruñean, 2026ko martxoaren 31n

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

## 11-25/ELCT-00001. Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak izendatzea

### HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Senatuko lehendakariak jakinarazi du Konstituzio Auzitegiko lau magistratu hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea 2026ko irailaren 11ko 18:00ak arte luzatuko dela autonomia-erkidegoetako legebiltzar guztietan.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 42.1.9. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Konstituzio Auzitegiko lau magistratu-postu huts betetzeko bi hautagai izendatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko ekainaren 30eko 15:00ak arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-26/OAN-00002. Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauak aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 20an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Juridikoek egindako txostena, Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauak aldatzeari buruzkoa –onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2020ko ekainaren 1eko erabakiaren bidez onetsi ziren arau horiek (2020ko ekainaren 4ko 64. NPAO)–.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauen aldaketa, bai eta aretoak erabiltzeko eskabidearen eredua ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauak

1. Jarduera parlamentarioa eta instituzionala:

– Hemizikloa batik bat erabiliko da Parlamentuaren Osoko Bilkuraren jarduera parlamentario-rako eta Legebiltzarreko Lehendakariak edo Mahaiak espresuki baimentzen dituzten bisitetarako eta bestelako irakaskuntza- eta dibulgazio-saio batzuetarako.

Publikoarentzako eserlekuak Mahaiaren erabaki bidez arautzen dira legegintzaldi bakoitzean.

– Erakunde-aretoa ekitaldi instituzionaletarako baizik ez da erabiliko: jabetza-hartzeak, sari-banaketak eta Parlamentuko Mahaiak baimentzen dituen ordezkaritza instituzionaleko bestelako ekitaldiak.

– Atalondoan ekitaldi instituzionalak eta Legebiltzarreko Mahaiak antolatzen dituen jardunaldi, ikastaro eta hitzaldiak soilik egingen dira. Osoko Bilkura egiten denean, foru-parlamentarietako eta Gobernuako kideek atalondoan emanen diete kasu hedabideei.

Halaber, foru-parlamentarietako edozein unetan erabiltzen ahalko dute atalondoa beraiek egindako adierazpenak bidez grabatzeko eta/edo hedabideei kasu emateko; betiere, programaturiko jar-

duera parlamentarioa eta instituzionala errespetatuz. Erabilera hori ez da arau hauen 3. apartatuan aurreikusitako prozeduraren menpe egonen.

Parlamentuko atalondoa KulturAtrio proiekturako ere erabiliko da; hau da, erakusketak egiten ahalko dira Mahaiaren erabakien bidez onetsitako baldintzetan (2016-02-17ko 19. NPAO eta 2026-04-14ko 38. NPAO).

– Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren aretoa esleiturik duen xederako soilik erabiliko da; hau da, Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren aldizkako bileretarako eta erakundeak erabakitzen dituenetarako.

– Batzorde-aretoak eta ponentzia-aretoak batik bat erabilera parlamentario eta instituzionalerako erreserbatutako eremuak dira.

– Gobernu-aretoa Gobernuak kideentzat erreserbatuta dago, Osoko Bilkura dagoen egunetan erabili ahal izan dezaten.

Areto hori beste egunen batean erabili nahi izanen balute, horretarako lehentasuna izanen dute, aldez aurretik erreserba eginda.

– Julia Álvarez Resano aretoa Lehendakariak koordinatutako ekitaldi eta bilkuretarako erreserbatutako eremua da batik bat. Beste edozertarako erabili ahal izateko, Lehendakariak baimena eman beharko du berariaz.

– Erabilera anitzeko aretoa prentsaurrekoak egiteko eta Legebiltzarreko Mahaiak antolatutako ekitaldiak, jardunaldiak, ikastaroak eta hitzaldiak egiteko erabiliko da batik bat. Beste edozertarako erabili ahal izateko, Parlamentuko Mahaiak baimena eman beharko du aurretiaz.

Aurretik eskatuta eta Mahaiak horretarako baimena emanda, erabilera anitzeko aretoa bestelako ekitaldi, jardunaldi, ikastaro eta hitzaldiak egiteko erabiltzen ahalko da, baldin eta aipaturiko jarduera horiek zerikusia badaukate Parlamentuko funtzio eta jarduerarekin, arauen 4. apartatuan instalazioak erabiltzeko aurreikusitako baldintzekin bat.

– Baluarte aretoa Mahaiko eta Eledunen Batzarrareko kideek adierazpenak eta prentsaurrekoak egiteko erabiliko da batik bat. Beste edozertarako erabili ahal izateko, Parlamentuko Mahaiak baimena eman beharko du aurretiaz.

Era berean, lan-bilkura bat amaitzean, bertaraturako pertsona zein kolektiboek aukera izanen dute prentsari adierazpenak egiteko Parlamentuko Baluarte aretoan, aurrez Parlamentuko Zerbitzuei eskatuta, arauen 3. apartatuan ezarritakoarekin bat; betiere, erabilera parlamentarioa edo instituzionala oztapatzen ez badu.

2. Foru-parlamentarien eta talde parlamentarioen jarduera:

Foru-parlamentarien eta haien talde parlamentarioen bilerak Legebiltzarreko talde horietako bakoitzari esleitutako bulegoetan egiten dira. Biler horietan Nafarroako Parlamentuko kide ez diren pertsonak ere parte hartzen baldin badute, ordezkari publiko izan zein ez izan, identifikazioa aurkeztu beharko dute, Parlamentuaren egoitzara nor sartzan den kontrolatzeko.

– Halere, bilerara joatekoak diren pertsonen kopuruaren nahiz justifikatutako bestelako edozein inguruabarren ondorioz ezinezkoa baldin bada taldeen instalazioak erabiltzea, baimena eskatzen ahalko da ponentzia-aretoa, gobernu-aretoa eta Julia Álvarez Resano aretoa erabiltzeko.

Horretarako baimena 3. apartatuan aurreikusitako prozedurari jarraikiz emanen da, eta lehentasuna izanen du jarduera parlamentario eta instituzionalak. Betiere, beharrezkoa izanen da foru-parlamentari izaera duten pertsonak egotea bileran, parte hartuz nahiz bertaratuta.

– Nafarroako Parlamentuko kideek erabilera anitzeko aretoan emanen dituzte prentsaurrekoak. Foru-parlamentari izaera ez duten pertsonak ezin izanen dute erabilera anitzeko aretoa erabili hedabideei kasu emateko, salbu eta agerraldia foru-parlamentariak lagunduta egiten badute. Talde parlamentarioek hedabideei dei egiten ahalko diete Nafarroako Parlamentukoak ez diren pertsonak lagunduta, Parlamentuko Mahaiari jakinarazita.

Halaber, senatari autonomikoak, Kontuen Ganberaren lehendakariak eta Arartekoak erabilera anitzeko aretoa erabiltzen ahalko dute nahi dutenean haien jardueraren berri emateko. Horretarako baimena arau hauen 3. apartatuan aurreikusitako prozedurari jarraikiz emanen da.

– Ponentzia-aretoa erabiltzen ahalko da Nafarroako Parlamentuko batzordeen lan-bilkura batean parte hartu du(t)en pertsonak edo pertsonak edo kolektiboek prentsari adierazpenak egiteko lan-bilkura bukatutakoan (Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1993ko apirilaren 19an hartutako erabakia eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2005eko azaroaren 7an egindako bilkuran hartutako erabakia).

– Baldin eta, salbuespen modura, arestiko apartatuan erabilera parlamentarioerako edo instituzionalerako mugatutako beste aretoetakoren bat erabiltzea eskatzen baldin badute talde parlamentarioek edo foru-parlamentarioek banaka, eutsi egiten zaio horretarako baimena Mahaiak emateko.

aren irizpideari, eta, betiere, beharrezkoa izanen da foru-parlamentari izaera duten pertsonak egoitea bileran, parte hartuz nahiz bertaratuta.

### 3. Eskaera egiteko prozedura:

– Legebiltzarreko zerbitzuek izapidetuko dute Parlamentuaren egoitzako eremuak jarduera parlamentario arrunterako eta instituzionalerako erabiltzea.

– Eremu horiek erabiltzeko eskaerak egin beharko dira Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa dagokion izapidea eginez edo Nafarroako Parlamentuko Protokolo Zerbitzuari igorritako posta elektronikoa bidez. Aipatu zerbitzuak honako irizpide hauei jarraikiz izapidetuko ditu eskaerak:

- Ponentzia-aretoa: al bait lasterren egiaztatuta erabilgarri dagoela eta Parlamentuaren organoen bilkurak edo ekitaldi instituzionalak eragozten ez direla, Nafarroako Parlamentuko Protokolo Zerbitzuak eskatzaileari posta elektronikoa bidez jakinaraziko dio aretoa erabiltzeko baimena duela.

- Gobernu-aretoa: al bait lasterren egiaztatuta erabilgarri dagoela eta Gobernuak erabili behar ez duela, Nafarroako Parlamentuko Protokolo Zerbitzuak eskatzaileari posta elektronikoa bidez jakinaraziko dio aretoa erabiltzeko baimena duela.

- Julia Álvarez Resano aretoa: erabilgarri dagoela egiaztatuta eta Lehendakariak baimena aurretiaz emanda, Nafarroako Parlamentuko Protokolo Zerbitzuak eskatzaileari posta elektronikoa bidez jakinaraziko dio aretoa erabiltzeko baimena duela.

- Erabilera anitzeko aretoa, prentsaurrekoetarako: al bait lasterren egiaztatuta erabilgarri dagoela eta erabiltzearekin beste ekitaldi batzuk eragozten ez direla, Nafarroako Parlamentuko Protokolo Zerbitzuak eskatzaileari posta elektronikoa bidez jakinaraziko dio aretoa erabiltzeko baimena duela.

- Nafarroako Parlamentuko areto edo espazioen beste edozein erabileratarako, Parlamentuko Mahaiaren baimena beharko da.

– Oro har, aretoak erabiltzeko eskaera eginen da instalazioen erabilera justifikatzen duen jarduerari hasi baino 24 ordu lehenago, gutxienez ere. Nafarroako Parlamentuko Protokolo Zerbitzuak, Mahaiak edo Lehendakariak emanen dituzte kasuan kasuko baimenak.

– Eskabide-orrrian adierazi egin beharko dira erabili nahi den aretoa; bileraren eguna, hasiera-ordua eta ustez izan den iraupena; parte-hartzaileen kopuru estimatua, eta eskabidea egiten duen parlamentaria edo talde parlamentarioa.

Baldin eta parlamentariak edo talde parlamentarioek aldi bererako eskatzen badute areto horietako bat erabiltzeko baimena, zorrozki hartuko da kontuan eskabideen aurkezte-hurrenkera, eta eskabideak aldi berean aurkeztu badira, lehentasuna emanen zaie abian den bilkuraldian eskabide gutxiengin egin dituzten talde parlamentarioek eginikoei.

– Eskatzen diren ekitaldiak egiteko ordutegia Parlamentua ireki eta ixteko orduetara egokituko da, salbuespeneko inguruabar justifikatuetan izan ezik, haietan Mahaia alde agertzen baldin bada.

– Parlamentariak edo talde parlamentarioek inor gonbidatzen baldin badute erabilera ez parlamentarioko bulegoetan bilera batean parte hartzeko, hori behar bezala akreditatu beharko zaie egoitzako segurtasun-zerbitzuei eraikinerari sartu ahal izateko.

– Adierazitako guztia lotuta egonen da Parlamentuaren egoitzara sartzeari eta bertan egoteari buruz kasuko ekitaldia egiten den unean indarrean diren segurtasun-arauetara.

– Honako helbide elektronikoa honetara igorriko dira baimen-eskabide guztiak: [protokoloa@nafarroakoparlamentua.eus](mailto:protokoloa@nafarroakoparlamentua.eus)

– Nafarroako Parlamentuaren intranetean begiratu ahal da aretoak erabilgarri ala erreserbatuta daudenentz: <https://intranet.parlamentodenava.es/reserva-salas-calendario>.

### 4. Instalazioak erabiltzeko baldintzak.

Arauetan aipatzen diren Nafarroako Parlamentuaren areto edo bulegoetan ekitaldi bat egiteko baimena jaso duen pertsona orok errespetatu beharko ditu areto edo bulego horietan dauden sinboloak eta logoak. Horiek ezin izanen dira ez tokiz aldatu ez ezkutatu.

Antolaketa-arrazoiengatik areto edo bulegoko edozein elementu tokiz aldatu beharra izanez gero, berdin delarik sinbolo bat nahiz altzari bat izan, beharrezkoa izanen da Protokolo Zerbitzuak horretarako baimena ematea. Sinbolo eta logoen kokaleku berriak ezin izanen du inolaz ere berekin ekarri horien esanahi handia gutxiestea.

Aretoa lagatzen zaienek beren gain hartuko dute aretoan nahiz bertako altzarietan gertatzen diren balizko kalteen erantzukizuna.

Erabilera anitzeko aretoa beste batzuek antolatutako ekitaldi, jardunaldi, ikastaro edo hitzaldiak egiteko laga behar bada, Parlamentuaren jardueratarako ordutegiaren barruan eginen da, eta erakundeari ez dio inolako gasturik ekarriko, salbu eta gaiaren interesa dela-eta Mahaiak berriazko baimena ematen badu.

5. Jarduera garatzearen ondoriozko erantzukizuna.

a) Izaera pertsonaleko datuak eta hirugarrenen eskubideak.

Ekitaldi edo jardueraren sustatzaile-antolatzaileak izanen da haren edukiaren arduradun bakarra, eta, bereziki, proiektatzen edo erakusten diren pertsona fisikoen balizko irudiena. Hori dela-eta, aldeztu behar du erakustean ageri diren pertsonen baimen espresu eta balioduna, edo horiek erabiltzea legitimatzen duen beste edozein oinarri juridiko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko 1/1982 Lege Organikoan nahiz aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

b) Egile-eskubideak eta jabetza intelektuala.

Ekitaldi edo jardueraren sustatzaile-antolatzaileak izanen da erantzule bakarra hura garatu bitartean obrak, argazkiak, irudiak, testuak, ikus-entzunezkoak edo erabiltako, hedatutako edo zabaldukoak bestelako materialak direla-eta dauden balizko jabetza intelektualeko eskubideen errespetuari dagokionez. Zehazki, erakutsitako edo erabiltako eduki edo materialen gaineko dagozkion ustiapen-eskubideak izan behar ditu, edo horiek erreproduzitzeko, jendaurrean komunikatzeko edo erakusteko kasuko baimenak edo lizentziak eduki behar ditu, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsitako Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginean nahiz aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

c) Nafarroako Parlamentuaren erantzukizuna.

Sustatzaile-antolatzaileak erantzukizun orotatik salbuesten du Nafarroako Parlamentua, egin beharreko jardueraren garapenean eragiten duten balizko inguruabar eta gorabeherak direla-eta, eta espresuki uko egiten dio Legebiltzar honen aitzinean balia litzakeen akzioak abiarazteari, bai eta, kasua balitz, kalte-galerak eskatzeari ere.

Nafarroako Parlamentuak ez du erantzukizunik bere gain hartzen jardueraren sustatzaile-antolatzaileak irudiei eta bestelako edukiei emandako erabilera dela-eta; hortaz, hari soilik dagokio hirugarrenen eskubideak urratzetik heltzen den balizko erreklamazio, erantzukizun edo ondorio juridiko oro, baita datu pertsonalen babesari, norberaren irudirako eskubideari eta egile-eskubideei nahiz jabetza intelektualari dagozkienak ere.

Sustatzaile-antolatzaileak hitzematzen du Nafarroako Parlamentua salbu egonen dela erakusketa-erakustetik eta ekitaldiaren garapenetik heltzen den balizko erreklamazio, prozedura, zehapen, kalte, galera, kostu edo gastu orotatik, defentsa juridikotik heltzen direnetatik barne, eta, zehazki, pertsona fisikoen irudien erabileratik heltzen direnetatik, datu pertsonalen babesari, ohorerako eskubideari, norberaren nahiz familiaren intimitateari, norberaren irudiari, egile-eskubideei, jabetza intelektualari nahiz hirugarrenen bestelako ezein eskubideri buruzko araudia urratzeagatik heldu ere.

Eginbide horrek barne hartzen ditu hirugarrenek egindako erreklamazioak nahiz agintari administratibo edo judizialen egintzak, hargatik eragotzi gabe sustatzaile-antolatzaileari, kasua bada, ekitaldiaren garapenean ondorioz zuzenean dagozkion erantzukizunak.



